


bidegileak



**Jean Etchepare (1877-1935)**

Egilea:

**ISABEL ARRIGAIN**

## Argentinatik Lekornera

Jean Etchepare Argentinan, Buenos Aires probintziako Marchiquita herrian jaio zen 1877an guraso euskaldunengandik. Familiak kontaktzen zuenez, gure idazlearen aitak, Jean Etcheparek, eta amak, Gratiennek, Argentinara abian zen itsasontzi batean elkar ezagutu zuten.

Izan ere, aita, garai hartako euskaldun asko eta asko bezala, lehenagotik bizi zen Hegoamerikan beste bi anaia Bernard eta Pierrekin batera, artzaintza lanetan; eta agian aberastu zirelako, edo agian anaietako bat, Pierre, Lekorneko neskatxa batekin ezkondu zela-

ko, 1880ko hamarkadan, (1883. urtean hain zuzen), Etchepare hiru anaiak eta haien familiak Euskalerriratu ziren eta Lekorne herrian kokatu. Euskal Herrirako bidaia egin zutenean, Jean eta beste bi anaia (Pierre eta Gracienne) bakarrik ziren jaiotak. Gainerakoak (Marie, Joséphine, Julie eta Émile) Ipar Euskal Herrian jaio ziren.

Lekorne jarduera nagusiak laborantza eta abeltzaintza diren Lapurdiko ekialdeko uda-



Jean Etchepare Bidegorri (1877-1935)



Argentinara joan ziren euskaldunak, abeltzaintzan ibili ziren



Lekorne herria

lerria da, Hazparneko kantonamenduan, Nafarroa Behereko Aiherra eta Heletarekin mugan. Herri honetan, ia-ia biztanle gehienek euskaraz egiten dute, eta erabiltzen duten euskalkia behe-nafarrera da. Jean Etchepareren garaian ere halakoxea zenez gero, euskalki honetan oinarritua zegoen eta Lafittek «navarro-laburdin littéraire» esaten zion literatur euskalkia izan zen gure Jeanek idazterakoan erabili zuena.

Gure idazleak sei urte zituen 1883. urtean familia Lekorne herrira itzuli zenean. Eskolara joateko adinean zegoen beraz, eta herri horretako eskolan sartu zuten bere hasierako ikasketak egiteko.

Garai hartan aitona-amonei bisita egiteko Bidarraiko herrira egiten zituen bidaien oroimenak dira, hain zuzen, *Beribilez* liburuan bilduko zituen kontakizunetako batzuk.



Larresoro: seminario ohia

## ***Irakasle euskaltzaleak***

Urte horiek pasa eta bigarren mailako ikasketei ekin behar zienean, Jean gure egilea Larresoroko Seminaria bidali zuten bere heziketarekin jarraitzeko.

Seminarioan 1889an sartu zen, hots, hamabi urterekin. Bertan, Hiriart-Urruty, Abbadie (Arnaud), Larralde eta Adema, besteak beste, ezagutu zituen. Louis Etcheverryk 1887an sorturiko *Eskualduna* astekariaren prentsa-idazle garrantzitsuenetakoak ziren, eta haiek izango ziren gure idazleari bere bizitza osoan zehar alde batera utziko ez zuen euskarako, eta oro har, euskal mundurako grina piztuko ziotenak. Gure egilearentzat, Hiriart-Urruty eta Abbadie izan ziren maisuak idaztankeran.

Jean Barbier ere ezagutu zuen garai hartan. Izan ere, Barbierrek apaiz ikasketak egin zituen Larresoron, eta Teologian doktore egi-



Etchepare familiaren etxea, Lekornen



Hiriart-Urruty (1880-1917), apaiza, euskaltzale sutsua. *Eskualdunan* artikuluak idazten buru-belarri aritu zen bere bizitza osoan. 1907 arte, Larresoron irakasle egon zen



Arnaud Abbadie



Gratien Adema, Zalduby (1828-1907)



Jean Barbier (1875-1931)

nik, 1898an apaiztu eta Larresoroko irakasle izendatu zuten. *Eskualdunako* lankidea izan zen, eta *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetako bat.

Gure Jean gaztea, 1894an, eta Larresoron eginiko ikasketak bukatuak, Bordelera joan zen, 1898 arte, Medikuntza ikastera. Eta hurrengo urtean Provencera soldadutzara (*Buruxkak*-eko bi artikulu, «Lilien usaina» eta «Villeneuve», denbora horretako lekuko dira). Ondoren, ikasketekin jarraiturik, Medikuntzako doktoradutza egin zuen: *Quelques*

*remarques sur le joueur de pelote*, esku pilotarietan ohikoenak diren eritasun bereziei buruzko ikerlana.

Aipatu beharra dago tesia 1901ean aurkeztu zuela eta urte honetakoak direla pilotariei eta pilota partidei buruz argitaraturiko hainbat artikulu. Geroago, haietako batzuk *Buruxkak*-en bilduko zituen: «Pilota partida», «Eskualdun Phestak Baigorri», «Misionestaren ezteiak».

## Lekornen eta Alduden

Jada mediku zelarrik, txikitako herrira —Lekornera— itzuli zen, bertan lau urte emanez mediku lanetan. Eta urte horietan hain zuzen hasi zen gure idazle gaztea bere lehen artikulua plazaratzen *Euskalduna* agerkarian. 1902an, euskararen sustapen eta defentsarako elkarte sortzeko Hondarribian egin zen «L'Eskualzaleen biltzarra»-n parte hartu zuen. Harrezkero, inoiz ez zion euskara eta euskal munduaren bidea urratzeari utziko, artikulugintzan gutxitan lortu den idaztien kalitatea eta originaltasuna lortuz.

1905. urtean, Alduden kokatu zen, 1914-18ko gerran mediku militar gisa parte hartzeaz lekora, 1935ean hil arteraino han geratuz. Bertan, Alduden, eman zuen bere bizitza gehiena hortaz, beti ere mediku gisa zuen lanari eta idazle eta euskal kulturaren sustatzaile gisa-koari ekinez.



Etcheparek 1. Mundu Gerran parte hartu zuen, mediku militar gisa. Urte horiek bitartean, gerrako kronikak argitaratu zituen *Euskaldun*an

Mende hasierako urteak benetan oparoak izan ziren gure idazle gaztearentzat. Aipaturiko *Euskalduna* astekariaz bestalde (1902tik aurrera hor agertzen zituen kronikak eta artikulua), 1921ean sortu zen *Gure Herria* aldizkarian ere parte hartu zuen bere idazkiekin, 1934 arte. Anartean, 1911n Baionan George Lacombe, Pierre Broussainek eta Julio de Urquijok euskara ikertzeko eta lantzeko sortu berria zuten *Cercle d'Études euskariennes* delakoaren bilkuretan parte hartzen zuen.


Halaber, Pierre anaia apaizarekin *Euskaldun laborarien almanaka* ateratzen zuen urtero, 1914ko gerra piztu arte.





Ezkerreko etxe handi horretan bizi izan zen Etxepare Alduden. Geroztik botea izan zen

Eskualzaleen biltzarra, 1910ean



P. Charritonek egin zuen  
Jean Etcheparek bere liburuetan  
jaso ez zituen artikuluen biltze  
eta paratzea



## **Euskaltzaleen biltzarreko lehendakari**

*Eskualzaleen biltzarreko lehendakaria* izan ere zen, 1922tik 1926ra, eta *Gure Herria* aldizkariaren lehendakariordea, 1930etik aurrera, agerkari hori paratze eta moldatze lanetan Pierre Lafitterekin gertu-gertutik arituz. Orobat, Euskaltzaindiko laguntzailea izan zen.

*Eskualduna* eta *Gure Herria* agerkarietan, gure idazleak hala Lekorneko berriak —eta geroago Aldudekoak— nola gai orokorretako artikuluak edota medikuntzari buruzkoak idazten zituen. Euskara eta euskal agerpenei buruzko berriak eta artikuluak astero *Eskualdunan* egiten zuen «Eskuara» kronikan eta «Gure Herrian» plazaratzen zituen.

Garbi dago, beraz, artikulugintzan aritu zela gure egilea bere bizi osoan zehar, ezin konta ahala artikulu eta kronika plazaratuz. Liburu gisa argitaratu zituen liburuxka bakarrak bi izan ziren: *Buruxkak* eta *Beribilez*.

Lehenengoa, *Buruxkak*, 1910ean kaleratu zena, lehenagotik argitaratuak zeuden hogeita sei artikuluz osatua dago, eta bigarrena, *Beribilez*, 1931n argitara eman zena, egun bateko bidaiaren aitzakiaz txikitako oroimenak eta Euskal Herriko bizi-ohiturak kontatzen ditu.

Aipatu bi liburuetan bilduriko artikuluez beste guztiak sakabanatuak zeuden zenbait agerkaritan P. Charrittonek biltze eta argitaratze lanari ekin zion arte: «Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. I. Euskal gaiak. II. Medikusolas. III. Kazetaritza (A). IV. Kazetaritza (B)».

## **Buruxkak liburua**

**L**ean Etcheparek ez zuen inoiz argitu zerk bultzatu zuen hainbat urtetan han-hemenka argitaraturiko artikulua liburu batean biltzera. Ezagutzen diren aipamen pertsonal bakarrak Jean Etcheparek eta Georges Lacombe 1911z geroztik elkarri bidalitako gutunak dira. Hortaz, sortatze horren arrazoiak ezean, ezinezkoa da jakitea nolako bidea urratu zuen gure mediku gazteak *Eskualdunan* Hiriart-Urrutyren eskutik artikulua egiten hasi zenetik liburuxka hau atera arte igarotako zazpi-zortzi urte horietan. Agian, eta Lafittek 1941ean bigarren edizioari eginiko aitzin-solasean aipa-

tzen duenez, lagunak izango ziren, Jeanen literatur maisutasunaz jabeturik, artikulua biltzeko liburu batean biltzea merezi zuela esango ziotenak.

Gainera, garai hartan euskaraz plazaratzen zen ia literatura guztia erlijioari buruzkoa zen. Bestela esanda, Etchepareren artikuluetan garatzen ziren gaiak guztiz arrotz zitzaizkion euskal literaturari, eta horrek artikulua horiek liburu gisa argitaratzeko balioa eta interesa areagotzen zituen.



*Buruxkak* liburukiaren lehen edizioa, 1910ekoa

Izan ere, hiru liburu soilik argitaratu ziren lapurteraz eta behe-nafarreraz 1910ean: gure egilearen *Buruxkak*, Jean Barbierrek bertsoz idatzitako *Nere kantuak*, eta *Maitena* pastoral.

Baina ez ziren, antza, bere maisu Hiriart-Urruty eta Abbadie izan literatur abentura horretan lagundu ziotenak, haiek berek ez baitzuten haien idazkiekin behar hori ikusten. Ez bata, —Hiriart-Urrutyk—, eta ez besteak —Abbadiek—, nahiz artikulu bat edo bi idazten zituzten astero, inoiz ez zuten liburu bat argitaratu, ez lehenagotik idatzitako artikuluez (gure idazleak egin zuen moduan), ez eta idazki berriez ere.

Esan dugun bezala, ez-ohikoa zen Jean gure idazlea egitera zihoana; are ez-ohikoak argitaratu ahal izateko bilatu zituen bideak: bere diruarekin ordaindu zuen lehen edizio hau, eta Tourseko Mame inprimategira jo zuen liburuxka inprimatzeko. Edizio honetarako dirua bere poltsikotik atera zuela jakinik, hobeto ulertzen da gure idazleak liburuxka hori saltzeko zuen interesa. Interes hori zela-eta, Jeanek berak gutun bi idatzi zizkion *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoaren Julio de Urquijo zuzendariari, bere idazlana salgai zegoelako aipamena egiteko eskatuz.

Bi gutunak frantsesez idatziak daude. Lehengoan, Jeanek idatziriko oharra zegoen-zegoenean argitaratzeko eskatzen dio. Ezetz erantzun bide zion Julio de Urquijok, bigarre-

nean onartzen baitio gure idazleak R.I.E.V. aldizkari horretako bibliografian aipamen soil bat agertzea, hark idatziriko oharren orde. Eta hala agertu zen, hain zuen.

Lehen aipatu bezala, *Buruxkak* liburua urteetan zehar idatziriko hogeita sei artikuluz osaturik dago. Liburuxkaren prestatze lanari ekin zionean, batzuk murriztu eta beste batzuk, aldiz, zabaldu zituen, xehetasun gehiago erantsi baitzien.

Gure idazlearen helburua euskara jakintzagai eta bizitzaren arlo guzietara helaraztea zenez gero, euskal literaturan inoiz gutxitan aipatuak izan diren gaiak garatu zituen: Frantzia barneko politika, Euskal Herriko hizkera eta usadioei buruzko oharpenak, osasun aholkuak, euskara, pilota-partida bat, haurtzaroko oroimenak etab.



R.I.E.V.-en agertu zen *Buruxkak*-eko bibliografia aipamena



## Eztabaida

*Buruxkak*-ek ez zuen harrera ona izan, bi artikulu —«Nor eskola-emaile. Zer irakats» eta «Amodioa»— ezin onartuzkoak bide zituelako (hits eta lizunak baitziren Jeanen inguruko esanetan) eta etxean gorde behar izan zituen, lagunen artean soilik banatuz.

Lafittek, esaterako, hau leporatzen zion:

Adixkide eta ahaide gehienak harritu! Liburu hori zuten, bapo eta eder, bainan ezin onetsizko bi kapitulu hitsekin: batean apezken eskoleri ezin aiherrago zagon, [...] egia-  
ren gordatzale bertzean, ausartzia guziak bilduak zauzkan, itsusienak barne, amodio garbia eta bertze [...].

Bigarren edizioa, aitzin-solasa Lafittek ezarria zuena, bi artikulu hauek gabe argitaratu zen.

Baina, zer dela-eta sor zitekeen haserre hau? Artikuluen mezuarengatik, jakina.

Irakaskuntzari buruzko artikuluan, Etchepare irakaskuntza erlijiosoaren aurka agertzen da, apaizak erlijioa ez diren irakasgaiak emateko gauza ez direlako uste osoa baitu. Izan ere, apaizen irakaspena sineste batzuetan finkatua dago, eta horrek berekin ekartzen du, ezinbestez, apaizek sineste horien alde aztertzea eta azaltzea bizitza.

Artikulu hori idatzi zuen garaian, Etchepare fedezko zalantzek sumindurik zebilen. Antza

denez, Haeckel eta Nietzsche filosofoen obrak irakurri zituen eta horrek lainoak ekarri zizkion bere fedeari. Baina jarrera hau, gure egileak gazte denboretan bizi zituen fedezko iluntasun eta zorabioen izateaz gain, garai hartan gizartean zegoen liskar giroaren isla ere bazen.

Garai hartan, Frantzian bizi-bizia zegoen Elizaren eta Estatuaren arteko harremanaren



*Buruxkak*-eko edizio kritikoa, «Klasikoak» sailean plazaratua. Lehen edizioko 26 artikulua daude jasoak

auzia. Errepublikanoek, 1877az geroztik agintea zutelarik, aurrerakuntza demokratikoa antiklerikalismo laizistari lotzen zioten ezin-



Pierre Lafitte (1901-1985) elizgizona, abertzalea eta euskaltzalea. *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietan argiratu ziren bere idazlanak. 1944an, *Herria* aldizkaria sortu zuen

bestean. 1880tik aurrera, eta framasoneriaren laguntzaz, erlijiozko ordenek eraturiko irakaskuntza-ereduaren erasotzeari ekin zioten, irakaskuntza oinarritzko, laiko eta nahitaezkoa antolatuz: lurreko jakitateak, erlijio-sinesteetatik bereizi egin behar ziren, ondo banandu. Hortaz, zientzien aurrerapenak eta gizartearen balio etikoen garatzeak eta sendotzeak laikotasunaren ildotik joan behar zuten, erlijioa Estatuarengandik aldentuz.

1902an Ezker Koalizio batek irabazi zituen hauteskundeak, liberalek egiten zuten apai-zen kontrako politika areagotuz.

Azkenik, Eliza eta Estatuaren arteko etena edo bereizkuntza gertatu zen 1905ean.

Ezker koalizio honek Elizari bere ondasunak bahitu bazizkion ere, aipatu beharra dago, hala ere, Erregimena ez zela inondik ere Erlijioaren edo Fedearen kontrakoa, esparruak ondo mugatzea baizik ez baitzuen nahi.



### *Eskola laikoaren alde*

ta giro hori da, hain zuzen, irakaskuntzari buruzko artikulu horren gaia. Izan ere, Etchepare gizon ikasia eta kultura mundukoa zenez gero, kezkatua zegoen Frantzian gertatzen ari zen Eskola Laikoaren sortzeaz, eta bere iritzi garbia utzi zigun. Baina iritzi hori baino lehen, artikulua hasieran, leerro poesiaz beteriko batzuk utzi dizkiugu, edo agian, poesiaz baino gehiago, filosofiaz beterikoak. Edozein kasutan, lerro ederrak hark defendatu nahi zuen Gobernuaren ahoan jarri zituenak:



Aldudeko plaza eta parrokia

«Ez dakit, zu eta ni eta gure idurikoak oro eta zero lurra barne, nolako kara zuen Munduak lehenbizikorik, are gutiago nolako luken ondarra, bere itzulikatik gelditzen balitz noizbeit; daukat, bakarrik, bethi danik izan dela, eta bethi izanen. Nola dabilan jakiteari lehiatu gogo naiz, badakialarik arren ez nitakela nehondik hel, ttipiak direlakotz ene ahalak eta handi haren golkoa». «Utz nezazu ohartzera berma nakion, ez balitz ere ikusteko baizik zer hatzemanen dutan. Aldiz,



Etchepare familia. Jean Etchepare bigarren lerroko gizon biboteduna da

etzait gaitzitu urrundarik jarraitzen balin bazaizkit, behaztopatzen nizalarik xuxentzen nuzula, laguntzen, guziz zurekin ukanen dituzun gizon araldeak niri jazartzetik begiratu. Ezen, nere onetan baino gehiago, zuen onetan ariko naiz». Holatsu mintzatu zen egun batez Elizari Gobernamentua, ez du oraino hain aspaldi. Eta berehala hitzeman sailari lothu».

Horra hor iritzia:

Apeza ez da eskola emaiteko egin. Deus ez doako hain guti, edo hain gaizki, nola eskolaren emaita. Apeza erlisionearen mutila da; erlisioneke eginbideer ditu behar jarraiki bere urhatsak. Erlisionearen erakusten ibil dadiela eskoletxeetan, ontsa; deus hori baino zuzenagorik, hortako galdata den ber; nork ukhatuko du sail horri buruz dela apeztua? [...] Apezaren irakaspina sineste batzuen gainean finkatua dago. Sineste heien alde diren gertakari edo itxurak baizik ez ditu ikusten; bertzeer aher da, edo bederen ez ikusierena egiten deie; itzalean dauzka. Nehondik ez ditake izan egiazkoa. Entzuleari, gerroztik, dena hedoi eta amets geldituko zaio burua.


[...] Ardurenik zorigaitzez apezari adituko diozu: hetsik begiak eta okhar hadi Elizaren altzoan!

Azkenik, Etchepareren nahiak ageriratzen duten lerroak:

Bizpalau lerro hok badaukete gure amets guzia:

Gobernamenduak ororen sakelatik atxik bitza mota guzietako eskoletxe andana bat, ahal bezain guti eta ahal bezain azkarrak.

Utz ditzala begi onez, larderia ala jazarkunderik gabe, Elizaren aldekoak iduri zeien garaitiko guzien eraikira, beren dirutik, beren indarrez. Apezak ken bitza eskolemailgotik, dela multzoan, dela bakarka; ez dituelarik erakustuntzat onesten gizon eta emazte xoilak baizik, eta hauien artean, ahalaz, aitama familiakoak.



Hitz batean, Etcheparek, bere garaiko Gobernarekin ados, Eskola eta Erljioa alde banatan ikusi nahi zituen, bakoitza zegokion esparruan, eta erabakitzeke ahalmenari eutsiz.



## Amodioa gogoan

Haserre sortu zuen bigarren artikuluari dagokionez, orobatsu, aipatu ditugun ideia liberalen barnean koka ditzakegu hor ematen diren iritziak. Izan ere, gorago azalduko dela-eta, Elizaren eragina murrizturik dago gizartean, eta askatasun handiagoz ikusten dira sexu eta amodio kontuak. Aurreko denboretako ilunkeriatik nahiko urrun geratzen da amodioa gozatzeko modua, eta hori da hain zuzen gure egileak artikulua horretan islatzen duena:

Zer da, bazkari on batetarik lekora, emaztearekin gozatzeari hoberik? Hazkurriak odola berritu dautzu; edarien indarra zainetan badabilkizu, bero bezain erne. Ez duzu amodioa baizik gogoan. [...] Aitamek, aitamate direnetik, ez dakite gehiago zen amodioa.

Esaldi txiki hauek, esaterako, egun ez lukete inolako haserrerik ez asaldatzerik ekarriko, baina garai hartan, euskaraz erlijiozko liburuak soilik irakurtzeko aukera zegoela, guztiz ez-ohikoak eta eskandaluzkoak gertatzen ziren. Areago, gizartearen ikuspegi liberala zen, Elizaren dotrinari buruz buru.

Émile Etchepare, Jeanen anaia

## Artikuluaren hautaketa

Baina, zeren arabera egin zuen gure egileak artikuluaren aukeraketa?

Baztertu zituen artikulu guztiak aztertzea ezinezkoa bada ere, ikus daiteke gai jakin batzuk alde batera utzi zituela *Buruxkak*-en lehen edizioa osatzerakoan. Izan ere, herriko auziei buruzko artikuluak edota Aldudeko eguneroko kontu txikiei buruzkoak ez ditu sorta horretan sartuko.

Medikuntzari buruzkoetan, esaterako, *Eriaren gela* sartuko du, ez ordea artikulu horrekin batera saila osatuz argitaratu zituen beste batzuk: «Eriaren artatzeaz», «Etche jende hiltzaleak» edota «Kutsua».

Emigrazioari dagokionez, gure egileak bi artikulu sartu zituen, «Urrungo leihorretan» eta «Canadako berriak».

Landa ekonomiari buruzko artikuluetan, bi soilik gordeko ditu: «Villeneuve» eta «Tratuak ordu batez».

Jeanek hainbeste maite zuen euskal kulturak ere bere lekua du liburuxka horretan: «Phesta-Berri», «Eskualdun Phestak Baigorriin 1905ean», «Eskuararen ikasteko» eta «Ongi etorria».

Adostasuna dago Etchepare mende honen maila jasoko idazletzat jotzean, eta Charrittonen hitzak aipatuz, nagusien artean ere kokatzean. Duintasuna eta hiztegiarekiko

garbitasuna izan daitezke bere idazkerari doazkion ezaugarriak. Baina horren ondoan, artikulu sorta horretan jasoriko zenbait artikuluaren literatur kalitatea nabarmentzen da, batez ere nolabaiteko kutsu autobiografia duten artikuluena: «Ameriketako orhoitzapenak», «Itz-egilearen zakurra», «Ithurri lekua» eta gorago aipaturiko «Canadako berriak» euskaraz idatziriko kontakizun ederrenen artean kokatu behar genituzke.



*Beribilez*-en edizio kritikoa,  
María Jose Kerejetak paratua,  
«Klasikoak» sailean plazaratua



## **Beribilez liburua**

Liburuxka hau 1931n argitaratu zen, hau da, *Buruxkak* argitaratu eta 21 urte geroago.

Nafarroan eta Gipuzkoan zehar egun bateko bidaia egitearen aitzakiaz, oso modu ederrez egiten du irakurketa bat baino gehiago dituen Euskal Herriko deskribapena. Hau da Etcheparek bere bigarren liburu honetan ezarri zuen aitzin-solasaren zati bat:

Broussain mediku eskualzale khartsuak maite baitzituen bihotzez eskualdun probintziak, laket zitzaion hango eremuetan barna zonbait egunen artetan iragaitea. Oinez zabilan ardura, aizina osoarekin. Abiatzean ez baitzuen gogoari emana norat hel, ez noizko, nun-nahi bazagon herritarrekin solasean, edo bazterrari so. Eta nolako begi erneak etzituen, beharriak zoin zabal etzaitxikizkan eskuarazko hizkuntza edozoini! Bere biziko gozorik hoberenak Eskualerriari berari kendurik hil izana da. Orhoitgarrienak Donostiatik Bilbaorainoko itsas-hegiak, Lekeitio bid'erdi, utzi zaizkola zion [...]. Urthe idorrak erori zaizkigu bizkarre-rat: egiteko hanitz edo gutiegi, irabaziak xuhur, gogoa bethi artegatua. Noizean-behin baizik ez gitazke herritik athera, mendiez bertzaldeko joan-jin batentzat; orduan ere beribilez, tarrapataka, burrunban [...]. Irakulea gogorkiegi jazarriko etzaitalakoan, ausartatuko niz halere, berriki auzoan eginikako itzuliño batez zonbait lerroren hemen ezartzera. Bioazi enen lumatik erori bezala.



Esan dugunez, 21 urte igaro dira irakaskuntzari buruzko artikulua argitaratu zenetik, eta nabarmentzekoa da bigarren liburu horretan islatzen den katolikotasun kutsu ageria. Gogora ditzagun *Buruxkak* argitara eman zuenean gure idaz-

leak zituen fedezko zalantzak. Alde benetan handia dago garai hartako Etchepareren eta *Berribilez* argitaratu zuen Etchepareren artean! Fededun zintzoa, abertzalea eta tradizio zaharren gordetzailea agertu zaigu Jean garai honetan.



Etchepare lurperatua dagoen hilobia



Etchepareren hilobiko oroitarria

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:*

- *Etchepare familiari*
- *Bidegileak bildumari*
- *Klasikoak bildumari*
- *Enciclopedia Auñamendiri*
- *Xipri Arbeldideri*
- *Koldo Mitxelena Kulturguneari*
- *Beñat Oihartzabali*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2186-0 (Lan osoarena)  
84-457-2189-5

L.G.: BI-2960-04